



Astekaria



elgoi



# Trenak samina ekarri du Elgoibarrera



**IRE**  
BIZIKLETAK  
San Bartolome 4 atzekaldean  
(Leku eder parkean) ☎ 74 43 77



# GARATE

JANTZI DENDA


*Asteartean beharagoak bukatzen dira*



*eta*



*BADATOR Udaberria*



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

### ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

### LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

### ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi.

### HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

### ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

### KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

### MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,  
Edu Sanz.

### PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

### ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

### KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Kortza, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Julian Mujika, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

### BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

### INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

### TIRADA:

3.500 ale

### LEGE GORDAILUA:

SS-1.038/92

### ISSN:

1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere

gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta


iritzien erantzunkizunik.

### AZALEKO ARGAZKIA:

... eta Kitto! astekaria



luzua fundazioa  
Fundación Luzua



# Unibertso sinbolikoak

**A**spaldi honetan sarritan entzun eta irakurri ohi ditut bi hitz hauek elkartuta, bikote maitagarri modura, bata bestearen ondoan, plazeretsu, bere amodioa alde guztietan erakutsiz.

Benetan paregabeak elkarte berri honetako partaideak. Alde batetik unibertsoa daukagu, hitz borobila berau, ia dena adierazten duena. Bere barnean galaxiak, izarrak, planetak, "big bang" leherketa, Lurra eta ilargia bera ere aurki genitzake. Hitz gutxi daude hain aberats azal daitezkeenak. Grezia zaharreko Urano handia, aita Zeru gure artean.

Baina bere adiskidea ez da gutxiagoko. Sinboloaren bidez adierazten dena ezagutzera ematen digu, hau da, beste zerbait irudikatu eta gogora ekarri, irudi eman eta hezur-mamitu, zeinuaren bidez azaldu. Hitz honek badu bere majia eta misterioa. Bai horixe!

Kasik bikote perfektoa osatzen dute hiztegiko bi lagun hauek. Itxaropen osoa jar zitekeen, beraz, bere erraietatik ateratako fruitu berrian.

Hala ere, sarritan gertatu ohi den bezala, sorturiko kontzeptua amatiarragoa atera zaigu. Horrela, aitaren nonnahi izate hori galdu eta arau, ohitura eta portaera multzoa

adierazten jaio zaigu, amaren adierazgarritasun, zentzuemaile edo partehartzaitetasunak tinko dirauen arren bere izaeran.

Eta hor dabilkigu hitz jaio berria. Bere adinari jarraiki, badirudi, alde guztietan agertu nahi duela, lotsarik gabe, dena aurretik eraman nahian.

Gainera, arrakastatsu gertatu da. Ez dago inor, ezta talderik ere, bere unibertso sinbolikoa, bere-berea delako, aldarrikatu eta defendatzen ez duenik, gauza guztien gainetik, besterik ez balego bezala.


Herri haserre honetan ez dira falta unibertso sinbolikoak ere, izaera azaldu eta esistentzia zentzudun bihurtzen duten horietakoak, ia euskaldunak beste, mota eta kolore guztietakoak, hobeago eta bortitzago izateko etengabeko lehiari, zeinek garaitu eta besteak zanpatu.

Baina tamalgarriena denon artean minimo batzuk ez aurkitu izana gertatzen da, Euskal Herria deitzen diogun unibertso sinboliko honek ere elementu amankomun batzuk ez dituela gauzatzen jakin, ezta horretarako ere ez dela gai izan. Etorkizun polita!

Eta horrela doakigu, bakoitza bere berezitasunarekin unibertso bat egiten, unibertso osoan hauts-izpi bat baino ez garenean.

**Esteban Antxustegi**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*







**A**ste honetako erretratua Fernanda Ansolak lagatakoa da. Begibistan da hau ere ihauterietakoa dela eta berak esan digunez 1943 urtean atera zuten. Fernandaren esanetan, sasoi hartan martitzenian bakarrik disfrazatzen ziren baina oso

ondo pasatzen omen zuten. Ikus dezagun Goiko-Errotako zelaian ateratako erretratuko neska gazteak zeintzuk diren:

Tente, ezkerretik hasita:

**Trini Barrutia, M.Karmen Garmendia eta Kontxita Armendia. Makurtuta: Ana M. Zuazubizkar, Fernanda Ansola, M.Angeles Lizundia eta Itziar Konde. Erdian: Anparo Barrutia (†).**



	<b>ZERAMIKAK</b>
Erakusketa eta bulegoa: Antonio Arrillaga, 6-8 behea 83 Postakutxa Tel. 74 33 44 - 74 06 92 Fax 74 37 11	Biltegia: Arregitorre, 10 - 14 behea Tel. 74 20 38 - 74 23 71 <b>20870 - ELGOIBAR</b> Gipuzkoa

# 'D' EREDUA BAINO GEHIAGO

Zer

gustatzen zaizu

gehien

 **ikastolatik?**



**MIREN BEREZIARTUA, 11 URTE**

"Kirol asko egiten dira eta tailerrak ere bai. Gelatik poza eta umore ona, baita mapa pilo bat ere. Irakasleak, onak, zorrotzak eta euskaldunak direlako, ni bezala".



**NAIARA MARTIN, 13 URTE**

"Patioak, zeren eta oso handiak dira. Gainera, asko daude, ikastolako haur guztiak jolasteko aukera dugu, bakoitzak nahi duen kirolean: futboleak, saskibaloian, eskubaloian, ...".



**JOSU CANALES, 3 URTE**

"Andereñoarekin dantza egitea".



**BORJA TORNOS, 6 URTE**

"Irakurtzen ikastea".



# IKASTOLA

Elgoibarrek sortu zuen eskola

**Tel: 74 44 41**



# Inauteriak



**9** gaueko **5** pena bat izan zen. Apenas Zapatu euririk egin duen negua izan eta justu ihauteriak ospatzen diren astebukaera iritsi behar hotza eta euria barra barra egiteko. Halere, animoak ez zuen beherantz egin eta bakoitzak prestatua zeukan mozorroa ahal zuen bezala jantzi eta eguraldiari atzea emanez, kolorez bete zen gaua. Baina, egun hauek berez nahikoa zoroak badira, eguraldia aspaldian zer esanik ez, eta horren adierazgarririk nabarmenena aste-

artean egin zuen... kitsua, giroa hotza baina zerua oskarbi.

Asko eta zein baino zein dotoreagoak. Hona hemen banaka eta bikoteka mozorrotu ziren elgoibartarren zenbait flash. Hotzaren aurrean babesa lortu zuen tigretxoak. Bakeroz, pailasoz, punkyz... Mejikoko inguruak urreratu zizkigunik ere izan zen bai eta, hain urruti joan gabe, andaluziako "grazia" eskaini zigunik ere, abaniko eta guzti.





Koadriek ez zuten huts egin, begi bistan da. Diotenez, bakoitzak benetan izan nahi lukeen mozorroa aukeratzen du. Egia izan ala ez, kontua da, papera ongi asumitzen dutela askok eta askok. Mutiko bihurriek tiratxinaz kamara apurtzeko asmoa erakutsi zuten, neskatilak, berriz, mantso mantso azaldu ziren txupetea ahoan, eta Eskozia aldetik moda berria iritsi zi-tzaigun. Tronkobil bat aurrez aurre ikusi ahal izan genuen eta kudrila benetan handia bildu zen Zaharren Biltzikiko dantzaldian. Haultzakoko antolatutako mozorro lehiaketa Ana Arguellok irabazi zuen mora jantziari esker. Argi ibili, poltsikoak betetzeko aukera laster da eta. Gabonetan saritua aterako den zenbakia zein den behintzat badakigu eta.





# Ihauteriak 95

Ostegunean hasi ziren ihauteriak Elgoibarraren Pilar Ikastetxeko haurren eskutik. Plastikoa eta paperez egindako mozorroak jantzi aurpegia margotu eta karroak irudimenez jantzi zituzten. Elgoibarko Izarrak bi ekintza antolatu zituen, biak larunbaterako. Arratsalde partera haurren txanda izan zen, euskal karaoke eta guzti. Gauean, berriz, Mozorro Lehiaketa. Hamar aurkeztu ziren taldekako lehiaketara eta bost banakakora. Taldeka lehen saria jaso zutenak argaz-

# Ihau

kian ikus ziren. H. Herri Esk eta ikasleak Euskal berresku irudime disfrazatu



# Sonia

Dantza Eskola



*Elgoibarren  
lehenengo aldiz!*

- **BALLET KLASIKOA**
- **DANTZA KONTENPORANEOA**
- **MANTENUKO GIMNASIA**
- **ESPRESIO KORPORALA**

*Klaseak Martxoaren  
6an hasiko dira!*

Errosario kalea, 31  
☎ 74 38 39 / 10 18 37

# MIREN

arraindegia



Santa Ana  
74 34 49  
**ELGOIBAR**



## ASTE HONETAN

# Dendak igandetan zabalik egotearen inguruan

**G**ai honi buruz iritzi bat eskatu didate eta ahal dudan mailan eta inor minik egin gabe nere ikuspuntua azaltzera noa.

Askotan esan izan dut esaera bezala: igandetan dendak irekita egongo balira beti zeozer faltan izango nuke. Nahiz eta ostiralean ahaleginak egin enkargu denak erosteko, larunbatean askotan joaten naiz dendara, agian oso hurbil daukadalako. Umea nintzenez asteen behin jeisten zen ama baseritik enkarguak kalean egitera eta hurrengo astra arte pasatzen gendun zegoenarekin. Gaur beste kapritxo ez gendun izango, alajaina! (Ez dut esan nahi hura hobearenik). Bateron batek esango du baserria eta kalea desberdinak direla. Ogia, esnea, arraultzak, oiloak, denak etxean geneuzkan baina gaur egun, nork ez dauka hozkailu edo izozkailu bat erosketak ostiralean egin eta asteburua dendara joan gabe pasatzeko?

Langileei begira gogorra da larunbat eta igandetan lan egin beharra izatea. Asteazkenean egunen bat libre izan arren, beraien asteburuko familia giroa apurtu egiten dela esango nuke.

Hainbeste kostata lortutako larunbat ingelesa ez al da penagarria orain galtzea?

Arlo honetan krisiak ere badu eraginik. Asteazkenean asko salduko balitz ez litateke jai egunetan ireki beharrik egongo. Beldur naiz aurrera jo beharrean, karramarroak bezala ez ote goazen.

Dena dela uste dut gaur egun dauden aurrerapenekin jai egunetan dendara joan gabe egon gaitezkeela.

Bestalde, jendea begira, ahal den neurrian zerbitzurik gehien eta erreztasunik haundienak eskaintzea ere egokia iruditzen zait.



MILA ORUESAGASTI

## Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga



SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

## Zer iruditzen zaizu dendak igandetan zabaltzea?



**MIREN AGIRREBEÑA**  
37 urte, farmazialaria

Oso geizki iruditzen jata. Supermerkatu haundixak hasi zian eta txiki batzuk kompetentzia nahi dabe baina alperrik da, bakoitzak bere klientelia daka eta.



**ANA MARI LASA**  
51 urte, etxeakoandrea

Neri ez jata ondo iruditzen. Atzera juatia dala usten dot, oin dala 20 urteko gauzia. Igandetan ere jarri behar al gara oin errekauek itxen!



**PAULINO BARRIADA**  
59 urte, jubilatua

Ondo iruditzen zait zer-bitzu gehiago egotea, batzuetan gauza batzuk erostea ahazten zaigu eta. Nire ustez denok bultzatu beharko genuke.



**ALFREDO DOMINGUEZ**  
27 urte, langabetua

Oso geizki iruditzen zait. Batek daki zer gertatuko litzatekeen denok horrela hasiko bagina! Astean gutxienez egun bat jai izan behar da.



**JOSE IBARRA**  
71 urte, jubilatua

Niri berdin dosta baina irekiko balitzezke hobe. Bezeruari aukeria ematen zaion bitartean edozein mementutan erosteko ondo dao.



**ARANTZA APRAIZ**  
39 urte, etxeakoandrea

Ez naiz aldekoa, dendarik ere izan behar dituzte jaiegunak. Orain arte domekatan itxita egon dira eta primeran moldatu izan gara.

**OBRAK** direla eta datorren martxoaren 6tik aurrera

**Eligondo**

ALTZARIAK-DEKORAZIOAN

PREZIO BEREZIAK

Santa Ana, 4 eta 6

Tel: 74 12 34

ELGOIBAR

## Bi elgoibartar hil ziren Azitaingo tren istripuan

Joan zen astelehenean Eibarren izandako tren istripuan hil ziren bost lagunetarik bi elgoibartarrak ziren. Esther Irureta eta Jon Muguruza gazteak bertan galdu zuten bizia, beste hiru herritar zaurituak izan ziren bitartean. Patxi Igartua eta Araceli Txurruka senar-emaztea Mendaroko Ospitalera eraman zituzten eta hirugarren zauritua, Pilar Morenza, Erresidentziara. Patxi Igartuak kolpe asko izateaz gain buruan kolpe larri bat du eta Pilar Morenzak esku bat galdu du.

**G**ehiegizko abiadura izan da istripuaren arrazoia Jose Antonio Maturana Garraio sailburuak atzo prentsurrekoan adierazi zuenez. Joan behar zuena baino bi aldiz azkarrago zihoan trena, izan ere, trenak orduko 69 km-ko abiadura zeraman, gehienez baimendutako abiadura 40 km orduko den arren. Gainera gidariak ez zion emerjentziako frenoari eman eta interbentorea berarekin zihoan, hori baimenduta ez egon arren. Hala adierazi dute Eusko Trenbideak eginiko ikerketen emaitzek. Ez zen, beraz, akats tekniko bat izan, giza akatsa baizik. Guzti horrengatik gidari eta intrebentorearen aurkako espediente jarri du martxan enpesak eta, Carlos Garcia enpresako presidentek esan duenez, litekeena da biak kalera bidaltzea. Kontuan izan behar da, gainera, gidariak aurretik beste bi istripu izan zituela. Horrez gain enpresako zuzendari nagusiak dimititu egin du eta zuzendari nagusiaren bigarrena bai eta giza balia bideetako arduraduna ere zesatu egin dituzte.

Elgoibarko zaurituen egoerari dagokionean badirudi hoherantz



... ETA KITTO ALDIZKARIA

doazela. Patxi Igartuak, kolpe gogorak jaso zituen buruan eta oraindik egun batzu egin beharko ditu Mendaroko ospitalean. Bere emaztea den Araceli Txurruka etxean da astezaketetik eta Donostiako Erresidentzian aurkitzen den Pilar

Morenzak eskua galdu duen arren badirudi hobera egin duela eta litekeena da datorren astean etxeratzea.

Bestalde, Maturanak adierazi zuenez bidaiari guztiak aseguratutak zeuden eta indemnizazioak izango dira kaltetu guztientzat.

### PATXI IGARTUA:

#### "Ez naban pentsatzen handik irtengo gendunik"

Patxi Igartua elgoibartarra zauri larrienak izan arren gai izan zen ospitaleko ohetik gertatutakoa azaltzeko. Bere aurpegian, oraindik ere, istripuak emandako sustua nabaria zen.

"Orain, ni neu, egotez ondongo, baina sustua handixa izan da. Trena Azitainetik zegoenean, bere abiada oso handixa zan. Orduan trena balantzaka hasi eta guk, andriak eta biok, zeozer gertatzen zela pentsau gendun. Halako baten, trena itzuli zen eta bagoia arrastaka hasi. Gertu zanian, jeikitzea nahi gendun bainapreso geundela ikusi eta auxilio diarka hasi

ginan. Jende guztia garraxika zegoen".

"10 minutu geroago trenbidera irten eta orduan jendia anbulantzietan sartu zaben". Patxi ikara handiz gogoratzen ditu une latz hoiek. "Beldur handixa pasa gendun. Trena itzuli zanean nik ez naban pentsatzen handik irtengo genduanuik".



## Gillermo Garate da EAJko zerrendaburua



**A**steazkenean jakin arazi zuten EAJ/PNV alderdi politikoak jakin arazi zuenez, Guillermo Garate izango da beraien zerrenda burua maiatzean izango diren hauteskundeetarako. Guillermo Garate alkate

gaia Kulturako Lehendakaria da gaur egun. Bestalde, Isaak Loiola gaztea Batzar Orokorretarako (Juntas Generales) zerrendatan seigarren doa, batzarkide izateko aukera duelarik.

## Hamahiru intsumitu elgoibartar epaitu dituzte dagoeneko

Joan den otsailaren 28an, hilaren azken egunean, Abel Irizar intsumitu elgoibartarra epaitu zuten. Abel, epaitua izan den 13. elgoibartarra da. 25 urteko gazte honek ez zuen tribunala errekonozitu eta bere jarrera azaldu nahi izan zuzenean ez zioten adierazpenik egiten utzi. Egun berean Roberto De la arada epaitu behar zuten baina azkenean martxoaren 22ra atzeratu da. Martxoaren 27an epaituko dute

Juan Manuel Lazarobazter gaztea ere. Bestalde, 1994ko apirilaren 19an epaitua izan zen Iban Esnaolak sententzia errekurritu egin zuen arren, atera berri da errekurtsioa eta epaia aurrekoa bera da: 2 urte, 4 hilabete eta egun bat. Era berean, larunbat honetan kontzentrazioa izango da arratsaldeko 7etan Maalako parkean, Elgoibarko Talde Antimilitaristak antolatuta.

### ■ Ezinduentzako bekak

FREMAP erakundeak 1995-96 ikasturterako ezintasun fisikoak dituzten pertsoneri zuzendutako XIX. Beken deialdia kaleratu du. Bekak lanbide hezkuntzari buruzkoak dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaletxeko Ongizate Sailera zuzendu 74 10 08 zenbakira deituz.

### ■ Oldartzen txostenaren inguruko eztabaida

Datorren asteazkenean, hilak 9, bilera bat izango da Kimetz elkartearen. Bertan, Oldartzen txostenari egindako emendakinen eztabaida egingo da. Bilera arratsaldeko 7etan izango da.

### ■ C.D. Elgoibar "Errealzaleak" aldizkariko protagonista

C.D. Elgoibar "Errealzaleak" aldizkarian agertuko da asteburu honetan. Inprimaki hau Errealak Anoetan jokatzen duenean kaleratzen da eta herri guztietan jasotzeko aukera dago. Bere orrietan Gipuzkoako taldeentzako leku bat ere izaten da eta oraingoan gure herriko taldearen inguruko hainbat kontu azalduko dira, hala nola, klubaren inguruko erreportaiak bat eta Kike Ormaetxea entrenatzaileari elkarrizketa. Honez gain, C.D. Elgoibarko poster bat banatuko da ale bakoitzarekin eta Joseba Etxeberria Errealeko jokalaria elgoibartarrari eginiko elkarrizketa bat irakurtzeko aukera ere izango da.

### ■ "Ate Irekien" eguna Herri Eskolan

Bihar, larunbata, hilak 4, "Ate irekien" eguna ospatuko da Herri Eskolan. Aurrematrikulazio epea irekita dagoela gogorarazteko, urterop antolatzen dute honako egun hau, nahi duten guztiak aukera dutelarik Herri Eskolara hurbildu eta bertako gelak, laborategia, jolaslekuak, jangela eta bestelakoak ikusteko.

### ■ Trabiesia bat antolatu du Morkaikok

Morkaiko Mendizale Elkarteak bi ekintza antolatu ditu datorren asterako. Ostiralean diapositiba emanaldia izango da Kultur Etxean, iluntze aldera. Inaxio Garmendiaren eskutik Pico Comunismori buruzko diapositiba bilduma izango da ikusgai. Bestalde, iganderako, hilak 12, irteera bat antolatu dute. Trabiesia bat izango da eta Erro, Satrustegi mendilerroa, Beriain eta Unanue zeharkatuko dira. Irteera goizeko 7etan izango da Plaza Haundian. Bazkideek 1.000 pta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 1.200 pta.

## Mikel Cornejo:

### "Sentsazio guztietara irekiak egon behar gera"

Jaio ere egun xeble edo behintzat seinalatu batean jaio zen, uztailaren 7an, San Fermin egunez. 1971. urtea zen ume koxkor haren lehen negarrak entzun zirenean. 23 urte igaro dira ordutik eta gaur egun ez da elgoibartar asko izango Mikel Kornejoren izena noizbait

entzun ez duenik. Udal Txistulari Taldea, EKEKEI, Haritz, Zazpiki, KOKOE, 6Nemen9...Guztiak ezagutzen ditu barrutik, bera, Mikel, partaide delako edo izan delako. Arte Ederrak bukatu berri ditu eta 1995a "urte sabatiko" bezala hartzea erabaki du.

- Umetan zer izan nahi zenuen?

- Kazetarixa. Bueno biokimikua ere bai, ze komiki bateko personaje bat biokimikua zan eta poderiak zitxun eta nik ere podere hoiek euki nahi nitxun.

- Haurtzaroko oroipen bat?

- Komikixak. Akordatzen naiz Plaza Haundixan egoten zala andra bat periodikuak eta rebistak saltzen. Berari hasi nitzan erosten komikixak: Superman, Spiderman, Mortadelo y Filemon eta holakuak, eta ondiokan segitzen dot, astero astero.

- Hortik al datorkizu marrazteko zaletasuna?

- Ez dakit, izan leike. Neretzat ume guztiek dake barruan marrazteko kapazidade berdina. Baina batzuri asko gustatzen jaku eta kapazidade hori garatzen juten gera, gero eta hobeto urten arte.

- Ba al daukazu estilo propiorik?

- Zenbat eta gehiago landu orduan eta gehiago garatzen da estilo propio bat. Komikiari dagokionean, adibidez, asko lagundu dia KOKOEK.

- Zein zentzutan?

- Inguru bat eukitzia inportantia da. Badaukazu zeinekin komentau, kriti-



"Ahal dan gehixen probatu eta gero aukeratu. Nahixao dot egindako gauza batez damutzia, sekula in ez dotelako damutzia baino"

kak jasotzen dituzu, beste-erakusten diezu... Oso aberatsa da eta asko ikasten da. Arte mundua lantzeko nahi eta nahi ez ingurune bat bihar da.

- Gai obsesiborik?

- Obsesioa ez dakit dan baina garrantzi handixa dake sexuak, kosmosak eta eboluzioak. Bai komikixetan, bai ipuinetan, erabiltzen ditzuten gaixak dia.

- Zeintzuk dira zure iturriak?

- Neretzat fantasia eta errealitatea askotan oso gertu daude, horregatik saiitzen naiz biak ez nahasten. Mundu guztiari

pasatu zaio zeozer ezin dabana esplikatu. Ikusten dogun mundua ez da hain itxixa, sentsazio guztietara irekita egon behar gera eta horiek dira nere iturriak. Azken finean errealidadia bizitza ikusteko inposatuko era bat da, ikuspuntuaren arabera aldatzen dana.

- Eta 6Nemen9ko abeslaria zara.

- Bai. Zokoan taldekoekin prueba batzuk itxen nebilela 6Nemen9koak alboko lokalean entsaiatzen zeber eta itxuria entzun izan ninduten. Eurak proposatu ziaten taldeko kantantia

izatia eta onartu egin naban.

- Eskenatokira igotzekotan zein arlo nahiago?

- Ekekei, 6NEMEN9, txistua, ...Sentsazio desberdinak dira. 6Nemen9ko kantante bezela gehixao sentitzen naiz protagonista antzerkixa itxen baino, nahiz eta bixak talde lanak izan. Baina danak ematen die satisfazioa, antzerkixak, irratixak, komikixak... Danak. Azken finean espresio bide diferentia baino ez dia.

- Nola doa "urte sabatiko"?

- Oso ondo. Denok egin beharko genuen zeozer da, norberak nahi dabana argitzeko piskat. Dana dala ez pentsatu ezer egin gabe bauanik, komikixak itxen, idazten... Sortzen jarraitzen dut baina horretara bakarrik dedikatuz, lasai lasai.

- Ez al zara azkarregi bizi?

- Ez dakat sentsazio hori. Gauza desberdin asko ezagutzeko aukeria izan dot eta aprobetxatzen ari naiz. Ailegatuko da aukeraketa egiteko aukera, baina lehenego dana probatuz. Esaten dan bezela, nahixao dot egin doten gauza batez damutzia, sekula in ez dotelako damutzia baino.


## FERIATSAN

### Otsaileko feriak bat

**G**oizeko giro epel eta eguzkiak ho-tzari eta euriari egin zion tartea arratsaldean. Apenas negurik izan dugun urte honetan, udaberrirako ateak bertan daudenean, kalean txingorra eta mendian elurra erruz erori ziren astebukaeran. Otsaileko azken larunbatean, feriaz gain, ihauteriak ospatzen

ziren. Baserritar franko hurbildu zen feria ikusi, ezagunak agurtu, aukera onak egonez gero zerbait erosi eta bazkal ostean, herrian buelta bat emateko, mozorro ezberdinak ikusi asmoz.

Ohi denez, ganadua, landareak, makinaria, tresneria bai eta, argazkian ikus daitekeen bezala, ahari bikoterik ere



## PROTAGONISTA



*Mari Tere Galdos*

Eroslea, 59 urte

● **Sarritan etortzen al zara feriarra?**

- Bai, beti etortzen naiz. Aspaldiko ohituria da eta beti ikusi dotenez etxian, gustau itxen jata.

● **Zertara etortzen zara?**

- Landariak ikustia gustatzen jata batez ere, baina uda partian ez daudenian ganadua ikustera be etortzen naiz.

● **Zer erosi duzu?**

- Larrosa gorrixa, mailukixa eta gindia. Gindia nere ahizpari bidaltzeko.

● **Zergatik erosten dituzu ferian?**


- Beti merkiauak egoten dia eta politxak gainera.

● **Zenbat ordaindu duzu?**

- Gindia 500 pta, larrosia 400 eta mailukixa 40 pta landare bakoitza.

● **Gehien gustatzen zaizun landarea?**

- Danak, batez ere larrosa gorrixa baina azaharra eta beste arbustuak ere gustatzen jataz segun ze tokitarako.



Artikulu honen bidez mendi garbiketari buruz hitzegin nahi nuke. Orain dela bost urte gertatu ziren sute ikaragarriak gogoratu behar ditugu. Jendeak

esaten du lehen ez zela horrelakorik gertatzen, eta egia da, baina horren zergatia aztertu beharko litzateke.

Deba bailarak beheakada handia izan du baserri munduan, baserri asko hustu egin dira eta baserritarrak kalera jeitsi, beren lurak pinuz betez. Zer esan nahi du horrek? Lehen, zelaia eta larreak garbi egoten zirela, urtero hango belarra eta garoa ebaki eta bildu egiten zelako. Orain, berriz, pinadi gehienak ez dira garbitzen, azken bizpahiru urteak kenduz gero.

Horrezaz gain, pinuak bere azpia berez garbitzen ez duenez, behartuak gaude urtero geuk garbitzera, gutxienez sega edo desbrozadora pasatuz. Badaude pinua baino garbiagoak diren zuhaitzak, hala nola, pagoa, haritza, abetoak... Azpimarragarria, batez ere, "abeto douglas" izenekoa. Pago eta abetoek 15 urte betetzen dituztenerako itzal handia egiten dute eta azpiko sasi, belar, sastraka eta garoa galdu egiten dira, bere hostoa bakarrik geratuz. Hau zelaia bezain ona litzateke suteak mozteko. Abetoak 60 urte inguru bete behar ditu bota aurretik; pagoak, berriz, 100-125 urte. Pinuari dagokionean, 35 urte dituenan moztu daiteke.

Jendea bultzatu nahi nuke mendiak garbi ditzaten. Horretarako badaude dirulaguntzak. Hauen Artean Elgoibarko Udalak urtero sari berezi batzuk ematen ditu Gabon Zahar Ferian, mendirik garbiena duen elgoibartarra sarituz.

Aipatu nahi nuke, baita ere, oso garrantzitsua dela ganadua basoetan ibiltzea, edozein animalik balio du ahuntzak ezik. Ganaduak jaten ez duena segarekin edo desbrozadorekin garbitu urtean behin eta mendiak nahiko txukunak geratuko dira zuek jabeok izango zaretelarik abantailarik gehienak izango dituzuenak.

**Juanito Zapirain**  
**Basozaina**



Andres Ibarluzea, 63 urte  
Urbitxe baserria  
(San Andres de Etxeberria)

Kalian bizi arren laguntzera juten naiz baserrira. Terrenua badakagu zeozer. Igual Bizkai guztixen gurien bezela ez die

garbitzen mendixek.

Frantzisko Urain, 72 urte  
Alkorta baserria (Mendaro)

Baso haundixa dakau guk. Otia, larra, sasixa eta hortarakua dauanian ganauantzako larria garbitzeko kenteitxugu eta gero



erre. Ona da garbitzia.  
Anton Mari Etxeberria,  
35 urte.  
Ballibar baserria (San Migel)

Basua badakat eta beste bati emanda garbitzeitxut, pinuantzat ona dala esaten debe eta. Ni tailarran ibiltzen naiz lanian eta

astirik ez dot eukitzen.

Agustin Astigarraga, 42 urte  
Belartondo baserria  
(San Migel)

Bai, badakat eta horixe garbitzen dogula, derrior, sua libratzeko Bestela, sutia egoteko arriskua haundixaua da sasixak eta belar



zikuak daudenian.  
Jose Esnaola, 65 urte  
Aretxabaleta baserria  
(Azpeitia)

Zeozer badakat. Bai garbitzen dou etxekuen artian. Norberan mesederako da garbitzia, zikina badao inork ez dau nahi eta.



**A**rrate Elizbururen gurasoak orain 74 urte joan ziren Errekarte baserrira bizitzera. Ordurako urte askoan eraikia zegoen baserria. San Roke auzoan kokatua, paraje ederra ikusten da bueltan, lasaitasuna. Atarian lotuak zeuden lau txakurren zaunkaden abisuan, Arrate azaldu zitzaigun. Sukaldeko epeleaneseri eta kontatu zigunez, sendabelarrik apenas ezagutzen duen baina, hara azaleko arazoentzat ezinhobea den botika: ormako belar gorrixa eta asuna egosi eta haren ura edatia. Horra”.



Albizu-Elizburutarrak bizi dira Errekarte baserrian, San Roke auzoan.

**A**stean hiru aldiz merkatu plazara jeisten da Arrate. Bertan, porruak, kipula, patata eta beste hainbat produktu saltzen ditu. Esnerik ere banatzen du eta sobratzen zaion kopuruarekin gazta egin eta gainontzekoa Gurelesari saltzen dio. Aitortu digunez, merkatu plazan nahikoa saltzen da, “ostegunetan onduen. Oin piskat bajatu egin da, eneroko aldapia edo”. Halere, “jendiak errezero jotzen dau. Ez dao ohiturarik bigarren pisura igotziana eta jendiak beheko postuetan erosten dau, karuaua egonda ere”.

Arratek gustuko du baserriko bizitza, “hauxe ezagutu dot eta beti izan naiz etxezalia. Neure ortuan eta animalixekin gustura moldatzen naiz”. Eta seme alabek? “haiek ere nahixao dabe kaleko lau paretak baino kanpua, libertade gehixao daualako edo”.

27 urte daramate Angel eta Arratek ezonduta. Denbora tarte horretan bi aldiz baino ez dute oporrik izan, baserriko lana lotua da eta. Aukeran Canariar irlak aukeratuko lituzke Arratek astebete eder bat pasatzeko, “hondartzia gustatzen zat neri, egualdi ona. Eskiatzera jutiak ez ditx inungo inbidixarik ematen. Hango hotza!”.

Ortuko lanak, behiak jeistia edo antzeko lanak,

## OSTEGI

- **AUZOA:** San Roke.
- **SORRERA:** Ez dago data zehatzik baina 400 urte inguru izan daitezke.
- **BIZILAGUNAK:** Marikruz Arriola, 75 urte, Angel Albizu, 55 urte, Arrate Elizburu, 49 urte, Kristina Albizu, 26 urte, Angel Mari Albizu, 25 urte eta Mirari Albizu, 20 urte.
- **LUR HEDADURA:** 12 hektarea.
- **ANIMALIAK:** Behiak, oiloak, konejuak ...
- **PRODUKTUAK:** Patatia, barazkiak ...
- **BIZIMODUA:** Gizonak kalean egiten du lan eta baserriko barazkiak, esnea eta bestelako produktuak ere saltzen dituzte.

baserri bueltan egin behar diren lanak trabarik gabe egiten ditu Arratek, “Oingo adelantuak, traktorak eta, asko laguntzen dabe, erratz itxetxuzu lanak. Ostantzian, mendiko lana da nekosua, garbitzia”.

Euskal Herrian orohar eta baserriarren artean bereziki, bada bapo jatearen famarik. Albizu-Elizburutarrak ere jatunak dira, “janari kontuetan gurian ez daka inork fallorikan”.

Errekartera goiz partera joanez gero, irratia entzutea normalena omen da, “Loiola batez ere eta batzuetan Arrate. Bixak gustatzen jataz, estilo diferentia dia”.

*Bele beltzak*

Badirudi bailara bakoitzean bele beltz kopuru jakin bat izaten dela. San Roken, zazpi ikusten ziren

haseran, “oin hiru bakarrik dabil”. Arratek esan digunez, “hoixek dia txarrenak. Frutaletara jun eta konturatu orduko dana jaten dabe, baitxa artua ere”. Uxatzeko erarik onena, “akabatzia da. Kazian bedia zelan bajau egin dan, txori asko dabil eta ez da komeni”.

Aurten dagoeneko loratu dute zuhaitzek, “negurik ez dou euki, udaberrixa aurreratu egin

## SABAIAN

“Akordatzen naiz umiak txikixak ziazienian zelan itxen zebe konbitia bateron baten urtiak izaten ziazienian. Orduan neska mutil kuadrila haundixa etortzen zan hona, hamabost edo hamasei izaten zian. Lehenengo txokolate jana izaten zan, gero modernuaua zan tortillia edo nozillia jatia eta sukaldian sartzen nitxun danak. Ostian, jolasian jarduten zebe ilundu artian. Batez be sabaiko belarran gustatzen jakuen, hantxe belar siku artian enredatzia. Kantsatzen ziazienian bueltia itxen zaben, oinezian danak batera”.

# Angel Arrizabalaga:

**D**urladako sorginaren gaitan da. Harek emandako belarrak egosi eta haren ura edaten omen du, "giltzurrunetan harrizak euki nitxun eta azido urikoa ere bai. Kafia biharrian, belar-ura edaten dot nik. Fenomenala!". Gosaldu apenas, gosaltzen denean, txorixoa eta salda hartu eta nahikoa. Biziorik ere badu, "purua, hoixe ezin ahotik kendu". Angel Arrizabalagak 57 urte ditu eta Azkarate baserrian bizi da.

- **Esaiguzu zein animalia daukazun.**

- Txekorrak eta ardik.

- **Zein arrazakoak dira?**

- Mota askotakoak, holandesak, alemanak, israelitak eta latxak.

- **Hoietako batzuk ez dira gehiegi ikusten hemen, ez?**

- Holandesak eta alemanak ez gehiegi. Halere onenak dira nerezat.

- **Zenbat daukazu?**

- 70 inguru.

- **Non erosi zenituen?**

- Alemanak Urkiolan erosi nitxun lehenbizikoz. Han erosi eta baserrian hazi. Garestiak dia baina.

- **Zenbatean daude?**

- 70.000 edo 80.000 pta inguru. Konparaizu, hemengo batek 16.000 pta balio ditu.

- **Halere merezi du.**

- Bai. Latxa batzuk erosi nitxun, por kapritxo, baina hiru hilabetera

makal makal eginda zeuden,

produkzioa

bajatu itxen da.

En kanbio,

miltxa

arrazakoak onak dia, mila buelta emateizkio, batez ere miltxa latxakin kruzautakuan.

- **Berezitasunen bat ba al dute?**

- Bai, ya lo creo! Miltxak ez dake ilerik apenas eta jaiotzen diazenian txerri txixiak modukuak dia, igual igualak.

- **Zeuk erosi eta gero saldu egiten al dituzu?**

- Lehenengo hazi eta ematen daben esnia partidu bezeruen



**"Nik nahixao dot  
ardixak eskuz jeistea,  
garbixaua da"**



artian. Gainera normalian urtian birritxan itxen dabe umia eta esnia ugari ematen dabe. Produktiorako arraza ona da Miltxa. Batzuk saldu ere itxeitxut, kilua mila pezetan edo.

- **Zenbatean behin bajatzen zera?**

- Astian bitxan. Gitxi gora behera 65 litro saltxeitxut, danak enkargora bajautakuak. Oin epokia da, mamia itxekua eta leku askotik eskatzen die, tabernak eta.

- **Ardiak eskuz ala makinaz jeisten dituzu?**

- Eskuz, nik eskuz, neuretzat hobia da. Eskuak garbitxu eta kitxo, makiniak, en kanbio, ez dakizu barruan zer dakan, mamitisa edo, eta gero jata ardi

■ **JATORRIA:** Persian du jatorria. Arabeeek Estatu Espainiarrean XI. mendean sartu zuten eta beranduago European. Burnian aberatsa den landarea dugu, anemiaren kontra oso eraginkorra. Gordinik, egosita edo frijitua jan daiteke.

■ **FAMILIA:** *chenopodiaceae*.

■ **IZEN ZIENTIFIKOA:** *Spinacia oleracea* L.

■ **KLIMA:** Klima freskoak komeni zaizkio, hotza bai baina gehiegizko beroa ez du

jasaten, ez dio onik egiten.

■ **ZOLUA:** Egonkortasun ertaineko zolu sakon eta aberatsetara ondo egokitzen da. Zolu oso alkalino eta azidoek ez diote onik egiten, aldiz, salinitatea onartzen du.

■ **EREINTZA:** Udara bukaeran, abuztu eta irail aldera. Landarea udazkenean, neguan bai eta martxo zein apirilean jasotzen da.

■ **EREINTZA ELKARKIDEAK:** Porrua, idarrak eta babak.



## Idoia Peñagarikano

"Idama" ileapaindegikoa



● **Ileapaintzailea ala pelukera?**

▶ Ez jata inporta, ileapaintzailea.

● **Zenbat ordu tente egunero?**

▶ Normalian, 10-12 ordu seguru.

● **Idama?** ▶ Idoia eta Amaia.

● **Datorren astean jai hartzeko aukera edukiz gero, zer egingo zenuke?**

▶ Gauza pilo bat, geldi ez nintzake egongo; neretzako libertade bat izango zan.

● **Nor gustatuko litzaizuke orraztea?**

▶ Ba ez dakit, igual Txanpi orraztuko nuke.

● **Zer egingo zenioke?**

▶ Edozer gauza, esperimtau eingo nuke.

● **Eta zuri nork?** ▶ Neri buruan ibiltzia ez jata gustatzen, baina adibidez "Rizos"en nola eitxen daben lan gustatzen jata.

● **Zertaz ez dakizu ezer ere eta jakitea nahiko zenuke?**

▶ Kontabilidadia ondo eramaten jakitzia gustauko jatan.

● **Zein da berriro ikusiko zenukeen pelikula?**

▶ El imperio del sol.

● **Zerk beldurtzen zaitu?**

▶ Batzutan bizitzak, baina bueno, etortzen dana hartu eta aurrera ein bihar da.

● **Ilea ez jausteko produktuetan sinisten al duzu?**

▶ Segun, porua itxi aurretik hasi ezkeru zerbait estimulatu leike, baina urte batzuk pasauta ez.

● **Ihauteriak gustatzen al zaizkizu?**

▶ Bai.

● **Ileak eta ilargiak ba al dute zerikusirik?**

▶ Nik ez dakit baina jendiak igartzen dabala esaten deu eta ez danez ezer kostatzen...

● **Zertarako aurrezten duzu?**

▶ Gustatzen jatazen gauzak erosteko, bizioetarako... adibidez eskulanak eitxeko materiala erosteko.

● **"Goenkale" ikusten duzu?**

▶ Ez.

BELEN ARRIZABALAGA

## GARIZUMA

### DOINUA:

Santa Barbara zure bizitza (II)

Ostiralero bijilia eta  
baita hausterre eguna,  
kristautenzako austeritate  
asko eskatzen diguna.  
Serietate ta giro hotza  
berakin ekartzen duna,  
erdi aroko kristautasunan  
azken aztarna iluna,  
berrogei egun irauten dittun  
ditxosozko garizuma. BIS

Ateoari ta kristauari,  
txorrada pentsatzen zaio,  
egun bateko haragi faltak  
putz bat ez bait du balio.  
Zer erlijio, zer misterio,  
zer bijili ta arraiio!

Basamortuko ekintza horrek  
bazun hainbat misterio,  
baina bizitzak ta gizarteak  
Zentzua kendu al dio? BIS



ARNAITZ GORRITI



JOSE ANGEL ZABALA

**URDAITEGIA**

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34



**EGONDO, s.a.l.**

METALEZKO ERAIKUNTZAK  
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kalea 4-7 ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

## Bi lanpostu atera dira Udaletxean

**Elgoibarko Udalak bi lanpostu bete behar ditu: Informatika gelarako monitore bat eta pake epaile bat. Hona hemen baterako zein besterako ezarri diren baldintza eta oinarriak.**

Informatika gelarako monitore izateko lanposturako eskaerak aurkezteko epea bihar, larunbata, hilak 4, amaitzen da. Interesatuak dauden guztiek Udaletxeko idakazritzan aurkeztu beharko dute eskaera eta kurrikulum-a.

Bestalde, bake epaile izateko eskaintzari dagokionean, izena emateko epea martxoaren 22ra arte luzatzen da. Azpiko tauletan zehaztu ditugun baldintzak betetzea ezinbestekoa da bi lanpostuetako azterketak egin ahal izateko.



■ ■ IMI-rako monitore bat behar da.

### PAKE EPAILE LANPOSTURAKO BALDINTZAK

- Irakurtzen eta idazten jakin behar da.
- Zuzenbideko ikasketak izatea baloratuko da.

#### INKONPATIBLEAK:

- Abokatu lanean aritzea.
- Kargu publikoren bat izatea.
- Negozioren bat izatea.

### INFORMATIKA GELAKO MONITORE LANPOSTURAKO BALDINTZAK

- Goi mailako tekniko karrera, erdi mailako eta teknika berezitasunean F.P 2 egina izatea, batez ere, elektronika, informatika, automatika eta antzekoetan.
- Programazioko hizkuntzaren bat edo mikroprozesadore gaiak ezagutzea.
- Ingelesa, gutxienez liburuak eta eskuliburu teknikoak itzultzeko.
- Eginbeharra galeraziko dion gaisotasunik ez izatea.
- Ezintasun edo elkartu ezinezkorik ez izatea.



Gipuzkoako futbolaren aldizkaria



III. urtea  
Zbk. 44  
95 martxo

## Kanterako futbola babesten jarraitzen dugu, zenbaki berezi batekin orain "ELGOIBAR" ALE BEREZIA

#### ERREPORTAIK:

- C.D. Elgoibar
- C.D. Tenerife
- Hurrengo arerioa  
REAL SOCIEDAD - Sevilla C.F.

#### ELKARRIZKETAK:

- Joseba Etxeberria
- Kike Ormaetxea (C.D. Elgoibarko entrenatzailea)

#### POSTERRA:

- C.D. Elgoibar





**Ez ahaztu zure alea. Ohiko kiosko edota liburudendan aurkituko duzu.**

# SEME-ALABAK ESTRAINETOKOZ ESKOLARATU BEHAR DITUZUEN GURASOEI OHARRA:

Zuen seme-alabek biharko egunean euskara ikasi beharrik izan ez dezaten, gaur EUSKARAZ IKASTEIA komeni zaie.

## **MATRIKULA ITZAZUE EUSKARAZ ! SEME-ALABEK ESKERTUKO DIZUETE !**

Ikus dezagun Elgoibarren OHOn azken urteotan eman den hizkuntz ereduen bilakaera.



(D eredu: euskaraz. B eredu: euskaraz eta gaztelera. A eredu: gaztelera)

## **URTE GUTXI BARRU ELGOIBARREN EUSKARAZ BAKARRIK IKASIKO DA!**



ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkartea

ELGOIBARKO  
UDALA



# I. BARREN-KROSA



## TXANKAKUA SARIA

Martxoak 19, igandea



### KATEGORIAK ETA ORDUTEGIA

- **Goizeko 11etan:**  
Alebinak (OHOk 5.-6. mailak)
- **Goizeko 11,30etan:**  
Infantilak (OHOk 7.-8. mailak)
- **Eguerdiko 12etan:**  
Nagusiak bikotea (neska eta mutila)  
16 urtetik gora  
Helmugara biek batera iritsi behar dute.

### SARIAK

- **TROFEOAK ETA TXAPELAK** (kategoria guztietan).
- **TXANKAKUA** Merkatarien Elkarteak **TXEKEAK ZOZKETATU**ko ditu partaideen artean.
  - **Alebinak:** 5.000 ptako 3 txeke.
  - **Infantilak:** 5.000 ptako 3 txeke.
  - **Nagusiak:** 15.000 ptako 3 txeke.

### IZENA EMATEKO

BARREN astekarian martxoaren 6tik 17ra eta egunean bertan irteera baino orduerdi lehenago.

- **Alebinak:** 300 pta.
- **Infantilak:** 300 pta.
- **Nagusiak:** 1.000 pta bikoteak.

Izena ematerakoan **KAMISETA BAT** oparituko da.

### IBILBIDEAK

★ **ALEBINAK (2 km. 240 m.):** BARREN (Irteera), Errosario, Plaza Handia, San Bartolome, P.M. Urruzuno, Lorito, San Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, Santa Ana, Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro, Maala, San Frantzisko, Errosario, PLAZA HANDIA (Helmuga).

★ **INFANTILAK (3 km.):** BARREN, Errosario, Plaza Handia, San Bartolome, P.M. Urruzuno, Lorito, San Frantzisko, BARREN, Errosario, Plaza Handia, San Bartolome, P.M. Urruzuno, Lorito, San Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, Santa Ana, Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro, Maala, San Frantzisko, Errosario, PLAZA HANDIA (Helmuga).

★ **NAGUSIAK (5 km.):** BARREN, Errosario, Plaza Handia, San Bartolome, P.M. Urruzuno, Lorito, San Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, Santa Ana, Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro, Maala, San Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, Santa Ana, Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro, Maala, P. Muguruza, Meliton (buelta), P. Muguruza, Maala, San Frantzisko, Errosario, PLAZA HANDIA (Helmuga).

ANTOLATZAILEAK: BARREN astekaria, MINTXETA Atletismo Taldea eta ELGOIBARKO UDALA

BAZKALOSTEAN  
DANTZALDIA

# BAZKARI HERRIKOIA

MARTXOAK 19 IGANDEA POLIKIROLDEGIAN

BARRENen 100. zenbakia ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditugu martxoaren 14tik 19ra. Ospakizun bandi boni bukaera emateko, igandean izango den **Bazkarira** etortzera animatzen zaituztegu BARRENeko irakurle guztiak.

IZENA EMATEKO: BARREN astekaria ☎ 74 41 12  
ELGOIBARKO IZARRA ☎ 74 16 26  
(martxoaren 17a baino lehen)

### NAGUSIAK

- Barazki menestra
- Redondoa saltsan
- Postrea
- Kafe konpletoa

PREZIOA: 2.000 pta.

### HAURRAK

- Bazkaria
- Jolasak

PREZIOA: 250 pta.

## San Bartolome eliza

■ M. Isabel Astiazarain Achabal, arte ikertzaileak 1985. urtean "La iglesia parroquial de Elgoibar" liburua argitaratu zuen. Gure herriko parrokiaren ikerketa izan zen emakume horren doktoretza tesiaren atal bat, "Gipuzkoako arkitektura barrokoa" izenburuaz aurkeztu zuena.

■ Honen ustez Elgoibarko parrokia eliza Gipuzkoako eraikinen artean esanguratsuenetarikoa bat da. San Bartolome parrokiari buruz idazteko bere liburura askotan joko dugu informazio iturri garrantzitsua baita.

■ Gaur egun parrokiak herriko Plaza Haundiko albo bat eratzen du. Eraikitzen hasi zenean, aldiz, plaza nagusia Altzola dorretxeak, kontzeju etxeak eta San Frantzisko komentuk mugatzen zuten esparruan zegoen.

■ Elizako obrak 1647ko maiatzaren 2an hasi ziren, Felipe II.ak baimena eman eta 30 urtera. Diru arazoez gain, garai hartan Udaltzatza osatzen zuten zenbait zinegotzi proiektu berriaren aurka zeuden, euren asmoa Olasoko parrokia zaharra berritzea zelarik.

■ Halere proiektuak aurrera egin zuen eta kalegoenen lurak erosi ahala ermita berri bat eraiki zen, San Bartolome. 1627ko abenduaren 21erako Santisimoa ekarri zuten tenplu berria eraikitzen zen bitartean.

■ 1777, urtean elizako obrak bukatutzat eman ziren. 150 urte behar izan ziren parrokia egiteko. 1716rako kultoa eskaintzen hasiak ziren baina 1791n bukatu zen erabat, aldare nagusiko

eta alboetako erretaulak eraiki zirenean.

■ Elizaren oinean sarrera nagusia dago eta beste bi zeharkako nabearen albo banatan. Azken hauek elizatarira irekitzen dira eta nabearen paraleloan doaz, dorrearekin bat eginez.

■ Nabea hiru tartetan dago eratua. Tarte nagusia kontraorma karratuz eraikia, barnekaldera kaperak lauki luzeak aldez hornituak osatuz.

■ Kapitela doriarreko pilare erraldoiek hiru tartetan banatutako kanoi ganga ilargixkekin eusten dute. Elizaren atzeko aldean, koro azpiko albo batean goi korora joateko eskilara aurkitzen da. Beste aldean kaperak bat. Bertan orain urte batzuk arte bataioko ur-pontea aurkitzen zen.

PELLO ARRIETA



## Maria Jesus Uribe Esnaola (1857-1958)



- Placida Marcelina Uribe Esnaola Elgoibarren jaio zen 1857ko urriaren 5ean.
- Moja izan aurretik Buenos Aires-era bizitzera joandako merkataria euskaldunarekin Lorenzo Suduperekin, ezkondu zen 1.888an.
- Maria Jesus Buenos Aires-era joan zen bizi izatera, senarraren ondora.
- Baina senarra urte gutxira hil zenez, Euskal Herrira itzuli zen haren gorpua Santa Klarako komentuan hilobiratzeko asmoz.
- Denbora gutxira komentuko mojen bizimoduarekin bat egin zuen, Klaratarren laugundiko moja eginez.
- Santa Klarako komentuko Ama Abatesa izan zen.
- 1957. urriaren 5ean omenaldi beroa egin zitzaion herrian, 100. urtebetetzea ospatzeko, egun berean S. Klarako ikastetxea inauguratu zelarik.
- 101 urte bete aurretik hil zen, 1958ko urtarrilaren 28an.



**goki eRreformak, s.l.**

DEBA KALEA 12  
TEL.: 74 42 23  
20870 ELGOIBAR

**ERREFORMAK**

**FATXADAK ETA TEILATUAK**

**OBRAK OROKORREAN**

**Fotero**

**OKINDEGIÀ**

**OPII LDEGIÀ**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

## BARRENek bikoteen kros herrikoia antolatu du

**Martxoaren 17an, ostirala, BARRENen 100. zenbakia banatuko da irakurleen buzoieta. Astekariaren 100. kaleratzea modu berezian ospatzeko BARREN astekariak hainbat ekitaldi antolatu du, tartean I. BARREN krosa. Herriko kaleetan zehar korrituko den lasterketa honetan parte hartzeko bikote mistoak osatu beharko dira.**



■ ■ Alebinek 2 km 240 m-ko ibilbidea dute, infantilek 3 km-koa.

**M**artxoaren 19an, igandea, izango da krosa. Goizeko 11etan alebinak eta 11,30etan infantilak aterako dira, bi kategoria hauetan bakarka parte hartu ahal izango delarik. Bikoteak osatzea ordea, halabeharrezko baldintza izango da nagusien lasterketan. Irteera ordua eguerdiko 12etan izango da.

### Ibilbideak:

- Alebinak: BARREN (irteera), Errosario, Plaza Handia, S. Bartolome, Errosario, Plaza Handia, S. Ana, Trenbide kalea, B. Ezenarro, Maala, S. Frantzisko, Errosario, PLAZA HANDIA (helmuga). 2 km 240 m..

- Infantilak: BARREN, Errosario, Plaza Handia, S. Bartolome, P.M. Urruzuno, Lorito, S. Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, S. Ana, Trenbide kalea, B. Ezenarro, Maala,

S. Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, S. Ana, Trenbide kalea, B. Ezenarro, Maala, S. Frantzisko, Errosario eta PLAZA HANDIA (Helmuga). 3 km.

- Nagusiak: BARREN, Errosario, Plaza Handia, S. Bartolome, P.M. Urruzuno, Lorito, S. Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, S. Ana, Trenbide kalea, B. Ezenarro, Maala, S. Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, S. Ana, Trenbide kalea, B. Ezenarro, Maala, P. Muguruza, Meliton (buelta), P. Muguruza, Maala, S. Frantzisko, Errosario eta PLAZA HANDIA (helmuga). 5 km.

Helmugan sartzen diren hiru kategorietako lehen korrikariak oroi-garria eta txapela jasoko dute. Honez

gain, Txankakua Merkatari Elkartearen eskutik, 5.000 ptako hiruna txeke zozketatuko dira partaide guztien artean alebinetan eta infantiletan, eta 15.000 ptakoa beste hiru txeke nagusien artean.

Lasterketa herrikoi honetan parte hartzeko izena alde aurretik eman ahal izango da BARREN astekarian hilaren 6tik 17ra bitartean, edota lasterketa egunean bertan. Izen-ematearen zenbatekoa 300 ptakoa da alebin eta infantilentzat eta 1.000 ptakoa nagusien bikotearentzat. Izena ematerakoan BARRENen kamiseta bat oparituko da. Entrenatzen hasita direnak ezezik, gainontzeko herritarrak ere korritzera animatu nahi dituzte antolatzaileek.

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 4

10,00: Urki B - Antzuola (Jubenilak)  
12,00: Elgoibar - Idiazabal (Kadeteak)  
15,00: Elgoibar - Aloña Mendi (2. errejionala)  
17,15: Haundi - Balmaseda

### Igandea 5

10,00: Eibar - Lagun Onak (Ohorezko kadeteak)  
12,00: Urki - Mondragon (2. errejionala)  
16,00: Elgoibar - Martutene (Jubenilak)

### ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 4

17,30: Elgoibar - Bidasotarra (Senior mutilak)  
19,00: Elgoibar - Bermeo (Senior neskek)

### FUTBITOA Urasandin Igandea 20

10,00: Tropiko - Revel Urbi    Gruas Pana - Resto del Mundo  
11,00: Lucky Luke - H. Verboten    Karkis - Fotero  
12,00: Pedruskos - U. de Chile    Sporting - Mimox

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Beasain 0 - Elgoibar 2 (Kadeteak)  
Amaikabat 0 - Elgoibar 1 (Jubenilak)  
Elgoibar 3 - Aloña Mendi 0 (Neskak)  
Arenas 1 - Haundi 1

### ESKUBALOIA

Pagoaga Elgoibar 22 - Zarautz 14 (Kadete neskek)  
Zarautz 16 - Elgoibar 14 (Kadete mutilak)  
Elgoibar 29 - Bergara 17 (Jubenil mutilak)  
Usurbil 26 - Txankakua Elgoibar 21 (Senior mutilak)



**Martxoaren 8an Emakume Langilearen eguna ospatzen da. Aurten Andraize Emakume Taldea, Kalera Taldea, Ongizate saila eta Osasun zentruko langileak elkartu eta egitarau bat antolatu dute. Bihar larunbata, martxoak 4, emango zaie hasera ekitaldiei eta hilaren 19ra arte luzatuko dira. Hitzaldiak, irratsaio bereziak, zinea, antzerkia, bazkaria eta erakusketak dira, besteak beste, ikusi ahal izango ditugunak.**

**Z**apatu honetan, hilak 4, eta igandean emakumei buruzko liburu salmenta egingo da King-kong-ean. Domekan baita ere, irratsaio berezi bat entzuteko aukera izango da Zazpiki irratian, Kalera taldeak zuzendua, sariren bat irabazi duten emakume idazle elgoibartarrek hartuko dute parte arratsaldeko 4etan hasita. Martxoaren 16an, berriz, Zazpikin eraso sexualei buruz ezta-

baidatuko dute talde antolatzaileek. Hitzaldiei dagokionean, "Sexualitatea eta emakumeak", "Emakumea eta HIESA", "Emakumearen ardura hezitzaile bezala" eta "Etxekoandreen egoera" izango dira entzungai. Zinea, antzerkia eta Emakumeentzat Txintxon Lehiaketa ere antolatu dira. Hilaren 12an, ospakizun guztietan ohi denez, bazkaria egongo da, bertsolari eta trikitalariek.



■ ■ Ostegunean "Modelo Clowntrapublicitaria" lana egongo da.

Guzti honetaz gain, hilaren 6an hasi eta 19ra bitartean erakusketa bat izango da familian gizonezko eta emakumezkoen rolen banaketari buruzkoa, OHoko 7. eta 8. mailako ikasleen laguntzaz.

### Musikeskolak 10 urte betetzen ditu

Aurten. Elgoibarko Inazio Bereziartua Musikeskolak 10. urteurrena ospatzen du. Hori dela eta, zenbait ekitaldi berezi antolatu dituzte urtean zehar burutuko direnak. Gaur, ostirala, martxoak 3, jazz kontzertu bikaina izango da Herriko Antzokian. Arratsaldeko 7,30etan hasita, "Andrzej Olejniczak-Iñaki Salvador Quartet" laukotea arituko da. Talde honek lau urte daramatza musika munduan eta tarte horretan jazz eskenatoki garrantzitsuenetarikoetan jo izan

dute: Donostiako jazz jaialdian, getxon, Zaragozan, Ibizan, Leridan... Horrezaz gain, 1994ko apirilean kaleratu zuten lehen C.D.a, "Catch" izenekoa.

Martxoaren 26an gazteez osatutako Pasaiako Illunbe orkestaren txanda izango da eta 30ean, berriz, Friedrich Lips soinu-jole errusiarra arituko da.


### Markeliñe

Datorren astean, hilaren 10ean, Markeliñe antzerki taldeak "Entretejas" lan mutua antzetzuko du. Obra honek teiatu baten ganean gau batean gertatzen diren istorioak kontatzen ditu. Markeliñe 1983an sortu zen begietatik sartzen den antzerkia bultzatu, garatu eta ikertu asmoz. antzezlearen gestuetan oinarrituz batez ere.



■ ■ Musikaeskolak 10. urteurrena ospatzen du aurten.


# 1994ko KIRO



## JUDOA

### GORKA GARATE (14 urte)


- Gipuzkoako Diputazioak atleta promesa sub-17 izendatu zuen.
- Euskadi eta Gipuzkoako sub-15 selekzioetako partaidea.
- Nazioarteko txapeldun Mont de Marsanten (Frantzia).
- 5. Espainiako sub-15 Txapelketan.
- Euskadiko txapeldun eskolarra (sub-15).



## PILOTA

### ARKAITZ BALZOLA (16 urte)

- Inter-distritoetan Gipuzkoako txapeldun.
- "Cafe Baque" torneoan (buruz-buru) txapeldun orde.
- Bai "Liga Vasca"-n eta baita "Interpueblos" txapelketetan oso emaitza onak lortu ditu. Bere mailan Gipuzkoako onenatarikoa da.



## TXIRRINDULARITZA

### JOSU UNZUETA (16 urte)

- Labegarietako Saria (Bergara): 8.a.
- Talleres Meca Saria (Aretxabaleta): 5.a.
- Otxoa Memoriala (Eibar): 4.a.
- Agustin Urkola Memoriala (Umieta): 4.a.
- Irurako Saria (Irura): 4.a.
- Atraves de Triana Saria (Oñati): 6.a.
- San Isidro Saria (Usurbil): 2.a.



## TRIATHLOIA

### IÑAKI ANDONEGI (25 urte)

- Bi Ironmam egin ditu; Anberesen (Holanda) eta Nizan (bere kategorian munduko 28.a gelditu zen).



## ESKUBALOIA

### LETICIA ASTRAY (15 urte)

- Bere taldea Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun geratu zen Infantil mailan. Espainiako Txapelketan 5. geratu ziren.
- Euskadiko selekzioko partaidea izan zen eta Espainia mailako konzentrazio batean parte hartu zuen Leridan.



## ATLETISMOA

### CARMEN PEREA (20 urte)

- Pista estalia: 800 metrotako Gipuzkoako txapeldun absolutua eta Euskadiko txapeldun juniorra. Laugarren Espainiako Txapelketan (800m).
- Aire libreko pista: 800 metrotako Gipuzkoako txapeldun juniorra. 1.500 metrotako Euskadiko azpitxapeldun juniorra. Bostgarren 800 metrotako Espainiako Txapelketa Juniorrean.



## EHIZA

### PATXI ARRIOLA (30 urte)

- Gipuzkoako Oilagorren txapelduna.
- Euskadiko Oilagorren txapelduna.



## FUTBOLA

### JOSEBA ETXEBERRIA (17 urte)

- Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioekin jokatu ditu zenbait partidu.
- Espainiako sub 20 selekzioan dago.
- Sanskeko jokalaria da .



## ARETO FUTBOLA

### JOSE LUIS GONZALEZ (23 urte)

- Elgoibar Areta Futbol Taldean jokatzen du 1. mailan.
- Gipuzkoako sub 23 selekzioan jokatu zuen 94an. Euskadiko txapelketan ere jokatu zuen.



## IGERIKETA

### AMAIA REVERT (15 urte)

- Aurreneko postuetan geratu da Oñate, Eibar eta Ondarrun izandako lasterketetan, bere marka pertsonala gaindituz.

# OLARI ONENA



## HERRI KIROLAK

**BOLO JOKUA: JAVIER OSORO (37 urte)**

- Gipuzkoako Txapelketan 2.a bakarka eta taldeka.
- Euskadiko Txapelketan 2.a. bakarka eta taldeka. (3 txirlo eta bolo alaves).
- Gipuzkoako bikotekako txapelduna Jose Irustarekin batera.
- Elgoibarko txapelduna banaka.



## KARATEA

**MIKEL ARMENDIA (11 urte)**

- Gerriko berde-urdina.
- Azpeiti, Markina, Elgoibar eta Lekeition izandako txapelketetan nabarmen aritu da lehen postuak eskuratuz.



## SASKIBALOA

**RICHARD ARANZABAL (25 urte)**

- Zaragozako "Picos Coronas" 2. mailako ekipoa hegala pibot postuan jokatzen du.
- 94ko Gabon Kirol Txapelketako Kirolari onena izendatu zuten.



## MENDIA

**IÑAKI ETXABE (25 urte)**

- 2-3 hilabete egin zituen Andeetan.
- 8 mendi igotzeko saiakera egin ondoren 6 hauetara igotzea lortu zuen: Huascaran (6768), Alpamayo (5.947), Quitarran (6036), Ranrapalca (6162), Ururus (5495) eta Uallunariju (5.686).



**BARRE**nek eta **UDAL KIROL ZERBITZUAK** 1994. **URTEKO KIROLARI ONENA** aukeratu nahi dute. Horretarako Elgoibarko Kirol elkarteei euren iritzia eskatu diegu eta goian dauzkazuen 14 kirolariak aukeratu dituzte.

Erabakia epaimahai batek hartuko du eta martxoaren 14ean ospatuko den Kirol**BARREN** 94 ekitaldian emango da ezagutzera. Epaimahaia Alberto Agirrezaldegi (BARREneko zuzendaria), Ramon Mujika (Udal Kirol teknikaria), Aitor Zabala (DVko Kazetaria) eta Jose Gurrutxagak osatuko dute.

## kirolBARREN KINIELA

Zein izan zen kirolBARREN 93ko irabazlea?

.....

Zein izango da KirolBARREN 94ko irabazlea?

.....

Izen-abizenak.....

.....

Tel.:.....


Fitxa hau behar bezala bete eta ekarri **BARRE**nera martxoaren 13a baino lehen. Bi erantzunak asmatzen dituzuen artean **ARTEGI** elektragailu dendak emandako **SONY** VHS bideo hau zozketatuko dugu. Zozketa Kirol**BARREN** ekitaldian egingo da, martxoaren 14ean arratsaldeko 7etan Herriko Antzokian



Asmatzen duzuenon artean

**SONY**

**VHS BIDEO HAU** zozketatuko dugu.



**OSPAKIZUNAK**

**BARREN**

**100.**


*zenbakia*

# XABIER LETE

**Martxoak 18, larunbata**

**Herriko Antzokian**

**Gaueko 10,30etan**



## Etxebizitzak

3 hilabetetarako bi bainu gela dituen ETXE BAT alokatuko nuke.

☎ 74 41 32 **Eduerne**

Banketxeke langile batek Elgoibarren AMUEBLATUTAKO ETXEBIZITZA alokatuko luke.

☎ 74 05 62 **Txema**  
9etatik 14etara

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.

☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.

☎ 74 32 98

LAGUN BAT BEHAR DUGU Donostian, Gros auzoan, pisu bat osatzeko.

☎ 29 11 10 **Jontxu**  
Gauz 10etatik aurrera

MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria. Gauz deitu.

☎ 74 26 26 / 74 20 31

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.

☎ 74 17 60

AEG markako erropa lehortzeko SEKADORA BAT saltzen da. Berria dago.

☎ 74 34 06

## Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.

☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m<sup>2</sup> eta bi planta.

☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut santa Ana 46 zenbakian

☎ 74 13 67

GARAJE BAT alokatzen dut San Roken, 5 zenbakian. Marraduna.

☎ 74 02 61

GARAJE BAT daukat alokatzeko San Rokeko pista beltzean. Marraduna.

☎ 74 21 64

Marradun GARAJE BAT saltzen dut. Santa Ana 6.

☎ 74 02 81

9etatik aurrera

## Bestelakoak

URREZKO KATE BAT galdu dut. Inork aurkitu badu, mesedez deitu.

☎ 74 32 48

GITARRAKO KLASEAK hartuko nituzke, norbait klaseak emateko prest balego.

☎ 74 09 02

Anbulategian KARTERA lapurtu zidaten. Diruagatik ez du inporta, dokumentazioa errekuperatu nahi dut. Entregatu Udaltzaingoa.

☎ 74 42 49 / 74 22 14

CARITASek sukalderako eta salarako ARMARIO BAT behar du.

☎ 74 15 09

☎ 74 12 57

## Lana

ENPRESA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUAK kontabilitate balantzeetarako analisi eta auditoriako partikularrak ematen ditu. Maila guztiak.

☎ 74 03 95

Neska euskalduna ETXEKO LANAK edota UMEAK ZAINTEZKO prest dago. Goizez.

☎ 74 09 02 **Kristina**

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.

☎ 74 39 89 **Mari Karmen**

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.

☎ 74 43 16 **Mari Karmen**

Goizez

Era guztietako faszikuluen ENKUADERNAKETAK eta KONPONKETAK egiten ditugu.

☎ 74 04 39 **Eduerne**

Edozein testu mota ORDENAGAILUZ PASATZEN DA. Grafikoak sartzeko aukera.

☎ 74 41 77 **Idoia**

☎ 74 22 77 **Iratxe**

## Salerosketak

YAMAHA TZR 80 cc BAT saltzen dut. Oso ondo dago. Prezio interesgarria.

☎ 74 41 12 **Nekane**

CUERPO MINOLTA 7.000 BAT saltzen dut. Prezio oso interesgarria.

☎ 74 04 38 / 74 08 00 **Aitor**

2 urtetako SIBERIAN HASKY BAT saltzen dut. Papelak dauzka eta pedigreea ere bai.

☎ 74 38 41

BMX KLASEKO BI BIZIKLETA saltzen ditut. Bata Peugeot markakoa, oso ondo zainduta, eta bestea Huch (USA) markakoa: cuadro orijinala, bakarra, frenoak, llantak eta manillarrak erregalatu.

☎ 74 34 05

## OTSAILEAN

### Hildakoak

- ▶ Rosario Aguajo Barrios, 76 urte (Otsailak 1)
- ▶ Isidra Josefa Arrizabalaga Gabilondo, 88 urte (Otsailak 2)
- ▶ Ignacia Zubizarreta Bastida, 80 urte, (Otsailak 26)
- ▶ Juan Justa Ansola Zelaia, 83 urte (Hilak 25)
- ▶ Maria Esther Irureta Agirregomezkorta, 28 urte (Hilak 27)
- ▶ Jon Muguruza Uriarte, 37 urte (Hilak 27)

### Jaiotakoak

- ▶ Jonathan Garate Guenetxea (Hilak 13)
- ▶ Ane Arakistain Perez (Hilak 20)
- ▶ Eider Rodriguez Sanchez (Hilak 24)

### Ezkondutakoak

- ▶ Jon Leiaristi Elustondo eta Agustina Nogales (Uztailak 31)
- ▶ Marsi Rodriguez Santás eta Maria Blanco Orza (Irailak 24)

## 3 OSTIRALA

19,30 JAZZ KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

22,15 ZINEA

"Entrevista con el vampiro"

## 4 LARUNBATA

Egun osoan zehar ATE IREKIEN EGUNA

✓ Herri Eskolan

10,00-14,00 GURUTZE GORRIKO BILERA

✓ Kultur 'Etxean

16,00 GARE IRRATIZALETUEN BILERA

✓ Kultur 'Etxean

19,30-22,15 ZINEA

"Entrevista con el vampiro"

## 5 IGANDEA

16,30 ZINEA

"Ganar de cualquier manera"

19,30-22,15 ZINEA

"Entrevista con el vampiro"

## 6 ASTELEHENA

17,00 PELLO AÑORGA IPUIN KONTALARIA

✓ Liburutegian

22,15 ZINEA

"Entrevista con el vampiro"

## 7 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"El ataque de la mujer de 50 pies"  
(Ikuslearen eguna)

## 9 OSTEGUNA

19,00 HBren BILERA

Oldartzen txostenari egindako emendakinak

✓ Kimetz Elkartearen

## OSTIRALA

21,30 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Inasio Garmendiak "Pico Comunismo" mendiari buruz.

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

22,15 ANTZERKIA

Markeliñe antzerki taldearen  
"Entre rejas"

## Martxoak 8 Emakume langilearen eguna

*Martxoaren 6tik 19ra*

ERAKUSKETA

Gaia: Rolen banaketa

• Kultur Etxean

*4, larunbata eta 5, igandea*

LIBURUEN SALMENTA

• King-Kong-ean

*5/igandea*

16,00 IRRATSAIO BEREZIA Zazpikin Elgoibarko emakume idazleekin

*6 Astelehena*

19,00 HITZALDIA

"Sexualitatea eta emakumeak"

• Kultur Etxean

*7 Asteartea*

22,15 ZINEA

"El ataque de la mujer de los 50 pies"

• Herriko Antzokian

*9 Osteguna*

15,00 TXINTXON TXAPELKETA

• Gure Dendan

21,30 ANTZERKIA

"Modelo Clowtrapublicitaria"

• Herriko Antzokian

Martxoaren 4tik 19ra bitartean Kultur Etxeko sarreran emakumeen gaiei buruzko publikazio ezberdinen mahai informatiboa jarriko da

## txandak

### FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
4, larunbata:	Ormazabal	Ormazabal
5, igandea:	Ormazabal	Ormazabal
6, astelehena:	Etxeberria	Etxeberria
7, asteartea:	Etxeberria	Etxeberria
8, asteazkena:	Etxeberria	Etxeberria
9, osteguna:	Etxeberria	Etxeberria
10, ostirala:	Etxeberria	Etxeberria

### OKINDEGIA:

5, igandea: FOTERO

## ZINEA

### Entrevista con el vampiro

Lestat vanpiroak biktimak aukeratu eta hilezkor (inmortal) bihurtzen ditu. XVIII. mendean Lestat-ek Louis De Pointe Du Lac-ekin egiten du topo. 200 urte beranduago, Louis-ek kazetari gazte bati vanpiro baten desio, maitasun, samin eta beldurrak kontatzen dizkio.

### Ganar de cualquier manera

Pete Bell saskibaloiko entrenatzailea da. Irabazteko, Petek, apostuetan profesionala den Happyrengana jotzen du. Ekipoak partiduak irabazten ditu baina Petek dimititu egiten du bere kontzientziaren aurka jokatu zuelako.

### El ataque de la mujer de los 50 pies

Nancy aberatsa da. Senarra diruagatik ezkondu zen berarekin eta parean jartzen zaizkion emakume guztiekin oheratzen da. Egun batean euri radioaktibo bat gainera erori eta 15 metroko altuera duen emakume batean bihurtzen da, Nancy.

# PILAR IKASTETXEA

Pilar Ikastetxeko Gurasoen, Irakasleen eta Ikasleen Elkarte Hezkuntzak, San Viator Klerigoen eskutik honako heziketa eskaintzen du:

- **EUSKALDUNA:** Gure ingurunearen partaide eginez.
- **INTEGRALA:** Gizakiaren arlo guztietan.
- **KRISTAUA:** Itunberriko baloreekin bat.
- **GAURKOTUA:** Gaur egun erreformak daraman jarrerarekin.



## ANTOLAMENDUA

### IKAS MAILAK

- **HAUR HEZKUNTZA**  
2 urtetik 5 urtera D ereduan.
- **LEHEN HEZKUNTZA**  
1., 2. eta 3. zikloak B murgiltze ereduan.
- **OHO 7. eta 8. B ereduan.**
- **BIGARREN HEZKUNTZA**  
95-I-3ko EBO onartua.

### IRAKASLEGOA

Erreformari eta euskarari buruz eguneratua eta prestatua.

### GURASOEN ELKARTEA

Jabetza eta administrazioaren arduraduna.

### ZERBITZUAK

- Laguntza Psikopedagogikoa:  
Bertako Psikologo eta pedagogoarekin.
- Jangela: Irakasle eta laguntzaile batekin.

### EKINTZAK

- Kirolak ▪ txapelketak ▪ txangoak,  
barnetegiak ▪ ikasketa bidaiak.

## INSTALAKUNTZAK

### GELAK

- Denak oso handiak
- 2 urteko gela 3 txoko desberdinez osaturik
- Psikomotritate gela
- Informatika gela

### GELA BEREZIAK

- Bideo eta ikusentzuteko gela
- Hitzaldi Aretoa
- Antzerki eta Giñol gela
- Teknologi gela
- Liburutegia: Liburuak etxera eramateko aukera.

### LABORATEGIAK

FISIKA ▪ KIMIKA ▪ HIZKUNTZAK

### KIROL UNEA

- Gimnasioa: aparatuekin ornitua
- Polikiroldegia hainbat jolastokirekin
- Patioa: Futbito jolastokiarekin
- Frontoia: bi frontoiekin


# COLEGIO Ntra Sra DEL PILAR

Urasandi Kalea 1 • Tel. 74 13 31 • 20870 ELGOIBAR

# MINTXETA

## UDAL INSTALAZIOA

*Kirola egiteko leku aproposena*



ELGOIBARKO  
UDALA